

Ermuko Mikologiaren lagunak

30 urteko
ibilbidea duen
taldea da eta
aurtengo
jardunaldien
20. edizioa
antolatu dute
urriaren
25etik 28ra
bitartean.



-Zein urtetan sortu zen taldea?

1975-1976an elkartzen hasi ginen eta aurren XX. jardunaldiak prestatu ditugu.

-Zenbat kide zarete?

20 lagun inguru. Emakumeak egon badira ere, gaur egun taldean denak gara gizonezkoak.

-Zein maiztasunekin biltzen zarete, non?

Ez daukagu elkartzeko maiztasun finkorik, jardunaldiak heltzen direnean ia astero elkartzen gara. Ez dugu egoitza finkorik, baina taldeko Francisco Pelazi esker, "La Amistad" elkarte gastronomikoan

egiten ditugu bilerak, bera bertako bazkide delako.

-Zeintzuk dira zuen helburuak?

Batez ere mikologia eta bere arlo ezberdinak jendeari hurbildu eta ezagutaraztea. Mikologiaren alderdi zientifiko-botanikoa, gastronomikoa, kirol eta entretimendu moduan. Era berean, jendea sensibilizatzea mikologia ezagutu eta errespetatu dezan. Horrez gain, etorkizunean lanean erne eta tinko jarraitzea.

-Urtean zeintzuk ekitaldi antolatzen dituzue?

Txango pare bat antolatzen dugu

urtean zehar. Horien helburua paseatu eta gure inguruak ezagutzeari izaten da. Horrez gain, urtero urriaren azkeneko asteburuan jardunaldi mikologikoak antolatzen ditugu. Aurren, urriaren 25, 26, 27 eta 28an izango dira.

-Zuen taldean parte-hartzeko zer egin behar da?

Gurekin harremanetan jarri, gaia gustukoa izatea eta batez ere interesa edukitzea.

-Zuekin harremanetan jartzeko?

Franciscori deitu: 630710648 zenbakira.

Alazne Aiestaran

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaia, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**MIGUEL
Harategia**

**TXORIZOAK
ODOLOSTEAK**

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna